

HAMAZAZPIGARREN ORDENANTZA FISKALA

ORDENANTZA HONEK PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITU, HAIN ZUZEN, ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIK EDO UDAL JARDUERAK EGITEAGATIK

1. Artikulua.- Udal honek, 5/89 Foru Arauaren arabera, horrek arautzen baitiitu Lurralde Historikoko Toki Ogasunak, Eranskinen tarifetan zehaztutako eta Ordenantza honetan ezarrita dauden arauak jarraiki, bestalde tarifa haiek ordenantzaren zati dira, zerbitzuak eskaini edo jarduerak egitearen gaineko prezio publikoak ezarri eta horien ordainketa exijitzen du.

2. Artikulua.- Ordenantza, udal barruti osoan, aplikatuko da.

3. Artikulua.- Ordenantza honetan araututako prezio publikoak, aipatu zerbitzu edo jardueren gozatzen dutenek ordainduko dituzte.

4. Artikulua.- Ordenantza honetan erregulatutako prezio publikoen tarifak, Eranskin honetan agertzen direnak dira.

5. Artikulua.- Eskatu edo egindako zerbitzu edo jarduerak bakoitzeko exijituko diren kopuruak ordaindu beharko dira, eta dagokion epigrafean adierazitako kopuruak ezingo dira txikiagotu.

6. Artikulua.- Ordenantza honetan aipatzen diren udal zerbitzuak eskaini edo udal jarduerak egin ahal izateko, aurretik Udal Administrazioari eskatu egin beharko zaio horien eskaintza edo egitea. Aipatu zerbitzuak edo jarduerak baimenduak izan direla ulertuko da, edozein kasutan ere, Ordenantza honetan erregulatutako prezio publikoak ordaindutakoan eta horien luzapenak ordaindutakoan, hala ere prezio publikoa ez balitz ordainduko, horrek automatikoki ekarriko duen ondorioa, zerbitzua ez eskaintzea edo jarduerak ez egitea izango da.

7. Artikulua.- Ordenantza honetan erregulatutako prezio publikoak ordaindu beharra, zerbitzuaren eskaintza edo jardueraren egitea hasten den unean sortzen da, nahiz eta, Udalak horren zenbateko oso edo partzialaren gordailatzea egin dezala eska diezaioken.

Hala eta guztiz, jadanik onartu eta luzatutako zerbitzuen eskaintza edo jardueren burutzea denean, ordaintzeko obligazioa, horietako bakoitzaren tarifa adierazitako epe natural bakoitzeko lehenengo egunean sortzen da.

8. Artikulua.- Prezio publikoaren ordainketa egin beharko da:

- a) Baldin eta zerbitzuen eskaintza edo Jardueren burutzea, udal diru-kutxan zuzenean diru-gordailatzea eginez egiten bada, ordainketa zerbitzua eskaini edo jarduerak egin aurretik, eta adierazitako gutxienezko kopuruagatik, egin beharko da.
- b) Aurretik gordailatzea egitea posible ez denean, zerbitzuaren eskaintzak edo jardueraren burutzeak duen izaera dela eta, ordainketa,, Administrazioak dagokion faktura aurkezten duenean egingo da.

- c) Zerbitzuen eskaintza edo jardueren burutzea urterokoa izango balitz, behin prezio publikoen matrikuletan barne sartutakoan, ordainketa urte naturaletan egingo da.

9. Artikulua.- Zerbitzua ez balitz eskainiko edo jardura ez balitz burutuko, eta hori ez egiteko arrazoia ezin lepora balezaio prezio publikoa ordaintzeko obligazioa duenari, ordaindua zukeen zenbatekoa itzuli egin beharko zaio.

10. Artikulua.- Prezio publiko hauengatik zorrak, premiamenduzko prozedura administratibo bidez, exijitu ahal izango dira.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

1. ERANSKINA

I.- ZARAMA BILTZEKO ZERBITZU BEREZIAK	
Tm. bakoitzeko edo zatikiagatik	222,46€
II. ZINK-EKO KAXEN SALMENTA, GORPUZKINAK LEKUALDATZEKO HELBURUZ	
Kaxa handiak	35,40€/Unitatea
Kaxa txikiak	20,60€/Unitatea
III. GAREJEETAN, BABESERAKO BARANDA JARTZEA	
	214,80€/Unitatea
IV. BALDOSA GRANITIKOAREN PREZIOA, 40X40 CM. OBRAN	
	35€/M2 (6 BALDOSA)

2. ERANSKINA

BASAURIKO UDALAREN KULTURA-ARLOAK ANTOLATUTAKO “HIRI-UDALEKUEN” ETA BASAURIKO UDALAREN KIROL-ARLOAK ANTOLATUTAKO “KIROL-UDALEKUEN” PREZIO PUBLIKOAK.

1. EGITATE ZERGAPEGARRIA.

Egitate zergapegarria da Kultura-arloak antolatutako udako hiri-udalekuetan eta Kirol-arloak antolatutako udako kirol-udalekuetan izena ematea. Udalekuak astelehenetik ostiralera izaten dira uztailean edo/eta abuztuan.

2. ORDAINTZERA BEHARTUTAKO SUBJEKTUAK

Ordaintzera behartuta daude udalekuetarako izena ematen duten pertsona fisikoak, edo horien gurasoak, tutoreak edo legezko ordezkariak.

3.- INSKRIPZIOKO KUOTA.

A) HIRI UDALEKUAK:

Inskripzio-kuota, hamabost egun bakoitzeko, honako hau izango da:

- ume bat: 61,00 €
- 2 ume (neba-arrebak): 92,00€
- 3 ume (neba-arrebak): 122,00€

Aipatu kuotak berrikusiak izan daitezke urtero, KPI-aren igoeraren arabera.

B) KIROL UDALEKUAK:

Inskripzio-kuota, hilabete bakoitzeko, honako hau izango da:

- ume bat: 99,00€
- 2 ume (neba-arrebak): 168,00€
- 3 ume (neba-arrebak): 227,00 €

Aipatu kuotak berrikusiak izan daitezke urtero, KPI-aren igoeraren arabera.

4. SORTZAPENA

Prezioa, udalekuetan inskripzioa eskatzeko mementoan, sortuko da.

5. ORDAINTZEKO MODUA

Ordainketa kontu korrontean sarrera eginaz egingo da, hain zuzen, Udalak BBK Erakunde Finantzario laguntzailean irekita daukan kontuan.

3. E R A N S K I N A

BASAURIKO UDAL MUSIKA ESKOLAREN PREZIO PUBLIKOA

1.- XEDEA

Xedea Basauriko Udal Musika Eskolan musika irakaskuntza berezien zerbitzua ematea da.

2.- ORDAINDU BEHAR DUTEN SUBJEKTUAK:

Udal Musika Eskolako zerbitzuak erabiltzen edo onuradunak diren pertsona fisiko nahiz juridikoek edo haien ordezkari legalek derrigorrez ordaindu behar dute.

3.- ORDAINTZEAREN BETEBEHARRA:

Prezioa ikasturterako matrikula egiteko unean sortutako betebeharretik jarriko da eta baita honako ordenantza honek arautzen dituen gainerako zerbitzu eta ekintzetatik.

4.-ORDAINTZEKO MODUA:

1. Ordainketa errazteko helbururekin matrikula egitean ordainagiriak helbideratuko dira.

Prezio publikoaren ordainketa banku-helbideratze bidez egingo da:

- Irailean dena batera, edo
- Hileko kuoten bidez. Hilaren 26a baino lehen Eskolako Administrazioari jakinarazitako baje suposamenduetan izan ezik, hilabetea hasi aurretik ordaindu beharreko hileko kuotak izango dira.
- Bitan ordaindu gabe utziz gero, inskripzio orria, matrikula eta honekin batera eskaintzen diren zerbitzuak automatikoki ezeztatuko dira.

3. ordainketa egin ondoren eginiko erreserben ezeztapenak soilik itzuliko dira idatziz zuritu daitezkeen kausak daudenean eta Musika Eskolaren Zuzendaritzak haien balorazioa egin ondoren..

5.- KUOTA:

1.- IKASTURTE BAKOITZEKO MATRIKULA: 36,80 €

2.- IRAKASGAIAK:

		Kuotak			
Maila	Errefortzua	IRAKASGAIA	eskola-denbora/astea	IKASTURTEKO KUOTA	HILEKO KUOTA
1		Musika eta mugimendua	ordubeteko 2 klase	368,00	36,80
2		musika prestakuntza	ordu eta erdiko klase bat	327,00	32,70
2		Musika-tresnetan prestakuntza tresna bakoitzeko	Ordubeteko klase 1 + ordu 1/2ko klase indib.	430,00	43,00
2		Taldeko jarduerak: bakoitzeko	2 orduko klase bat	40,00	4,00
2	Oin. maila	musika prestakuntza	ordubeteko 2 klase	368,00	36,80
2	Oin. maila	Musika-tresnetan prestakuntza tresna bakoitzeko	Ordubeteko klase 1 + ordu 1ko klase indib.	510,00	51,00
2	Oin. maila	Taldeko jarduerak: bakoitzeko	2 orduko klase bat	40,00	4,00
3		musika prestakuntza	ordu eta erdiko klase bat	327,00	32,70
3		Musika-tresnetan prestakuntza tresna bakoitzeko	3/4eko klase indib. bat	510,00	51,00
3		Taldeko jarduerak: bakoitzeko	2 orduko klase bat	40,00	4,00
3		Beste ikasgaiak bakoitzeko	ordu eta erdiko klase bat	327,00	32,70
3	Erdi maila	musika prestakuntza	ordubeteko 2 klase	368,00	36,80
3	Erdi maila	Musika-tresnetan prestakuntza tresna bakoitzeko	1,15 orduko klase indib (tresna nagusia)+ordu 1/2ko klase indibidual 1 (tresna osagarria)	710,00	71,00
3	Erdi maila	Taldeko jarduerak: bakoitzeko	2 orduko klase bat	40,00	4,00
3	Erdi maila	Beste ikasgaiak bakoitzeko	ordu eta erdiko klase bat	327,00	32,70
4		Musika-tresnetan prestakuntza tresna bakoitzeko	Ordubeteko klase indb. bat	610,00	61,00
4		Taldeko jarduerak: bakoitzeko	2 orduko klase bat	40,00	4,00
4		Beste ikasgaiak bakoitzeko	ordu eta erdiko klase bat	327,00	32,70
4	Erdi maila	Musika-tresnetan prestakuntza tresna bakoitzeko	1,15 orduko klase indib (tresna nagusia)+ordu 1/2ko klase indibidual 1 (tresna osagarria)	710,00	71,00
4	Erdi maila	Taldeko jarduerak: bakoitzeko	2 orduko klase bat	40,00	4,00
4	Erdi maila	Beste ikasgaiak bakoitzeko	ordu eta erdiko klase bat	327,00	32,70

3.- IGOERAK: Erroldaturik egon ezean kuotak % 25 igoko dira.

4. MURRIZTAPENAK: Familia-unitate bateko hainbat kide ikasturte berean matrikulatzeak ekarriko ditu murriztapenak. Familia-unitate gisa hartuko dira helbide berean erroldatutako gurasoak, seme-alabak eta izatezko bikoteak.

1.- Familia ugari gisa hartzen diren familia-unitateak:

- Maila orokorra: matrikulatutako kide guztien irakaskuntza-kuotan %50eko hobaria.
- Maila berezia: matrikulatutako kide guztien irakaskuntza-kuotan %100eko hobaria.

2.- Familia ugari gisa hartzen ez diren familia-unitateak:

- Familia-unitateko bi kide matrikulatuta: 2 ikasleen irakaskuntza-kuotetan %10eko hobaria.
- Familia-unitateko hiru kide edo gehiago matrikulatuta: familia-unitateko ikasle guztien irakaskuntza-kuotetan %20eko hobaria.

4. ERANSKINA

BASAURIKO UDALEKO GAZTERIA ARLOAK ANTOLATUTAKO “IKASTARO ETA TAILERREI” DAGOKIEN PREZIO PUBLIKOA

1.- INSKRIPZIOKO KUOTAK

Inskripzioko kuota hurrengo era honetakoa izango da:

- Egun bateko irteera eskatzen duten ikastaro eta tailerrak: 30 € / pertsonako
- Aste bukaerako irteera eskatzen duten ikastaro eta tailerrak: 80 € / pertsonako
- Aire librean garatzen diren ekintzei dagozkien ikastaro eta tailerrak: 3 € / orduko
- Udal lokaletan garatzen diren ikastaro eta tailerrak: 2 € / orduko

Murrizketak:

Langabezian dauden pertsonen eta ikasleek % 50eko murrizketa izango dute

2.- SORTZAPENA ETA ORDAINTZEKO ERA

Prezioa, Gazteria Arloak antolatutako ikastaro edo tailerretan inskripzioa eskatzeko momentuan, sortuko da

Ordainketa kontu korrontean sarrera eginaz egingo da, hain zuzen, Udalak BBK Erakunde Finantzario laguntzailean irekita daukan kontuan.